

BILBOK OMENALDIA EGIN DIE EMAKUME MIGRATZAILEEI

- Bizkaiko hiriburuko Udalak “Aintzatespena Bilboko emakume migratzaileei” ekimenaren hirugarren edizioako sariak banatu ditu.
- Immigrazioaren Tokiko Kontseiluaren ekimena da, eta emakume etorkinek bizitza sozial eta publikoan duten presentziaren garrantzia aitortzea eta hiriari aniztasunaren erreferentziazko eta aintzatespeneko espazioak ematea du helburu.
- 7 emakume saritu dituzte 6 kategoriatan, Emakume Politikaria, Artista, Giza Eskubideen Defendatzailea, Gaztea, Komunitate Eragilea eta Ekintzailea.

(*Bilbon, 2022ko martxoaren 10ean*).- Gaur goizean, [BBK KUNA](#)ko Ganbara aretoak, Bilboko Udaleko [Immigrazioaren Tokiko Kontseiluak](#) bultzatutako “Aintzatespena Bilboko Emakume Migratzaileei” ekimenaren III. Edizioaren sari banaketa ekitaldia hartu du.

Ekitaldi instituzional horren buru **Itziar Urtasun** Bilboko Udaleko Lankidetzeta, Bizikidetzeta eta Jaietako zinegotzia izan da, eta emakume horiek hiriaren bizitzari egiten dioten ekarpena balioetsi du. *“Bilbon, biztanleria etorkina dugu, indar handikoa, ekintzarako gaitasun handikoa eta harrera egin dien hiriaren garapen sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalari ekarpenak egiteko gogo handia duena. Eta biztanleria-talde horren barruan, funtsezko lekua betetzen duten emakume asko nabarmentzen dira, erreferentzia komunitarioko eragile, profesional, lider, pentsalari, politikari eta ekintzaile gisa, eta,aldi berean, euren familientzat eta beste gizarte-zirkulu batzuentzat ongizatearen eta garapenaren eragile gisa”*.

Ekitaldi honek kulturarteko ereduaren oinarrietako bat azpimarratzen du, hau da, **aniztasuna tokiko garapenerako faktore gisa onartzea**, eta **martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean**, ospatuko da. Itziar Urtasunek Bilboko Udalak kulturartekotasuna zeharkako tokiko ekintzaren printzipio gisa indartzeko duen konpromisoa nabarmendu du, *“oso harro gaude, eta eskerrak eman gura dizkiegu Bilboko gizartera migratu duten bizilagun guztiei, emakumeen zeregina nabarmenduz”*.

Aurtengoa ekimenaren hirugarren edizioa da, eta helburu hauek ditu: **batetik, emakume etorkinek bizitza sozial eta publikoan duten presentziaren garrantzia aitortzea, eta, bestetik, Bizkaiko hiriburuan aniztasunaren erreferentziazko eta aintzatespeneko espazioak posizionatzea**.

Horri dagokionez, zinegotziak azaldu duenez, *“funtsezkoa da komunitatean erreferenteak izatea, norberaren burua begiratzeko ispiluak, hurrengo belaunaldiak inspiratzen eta babesten dituzten emakumeak, daudenak eta etorriko direnak. Lan, superazio, ahalegin pertsonal eta helburuen lorpeneko eredu horiek gidari izan daitezke bide berean dauden beste emakume batzuentzat”*.

Oraingo deialdirako, **Itziar Urtasun** Lankidetzeta eta Bizikidetzako zinegotzi eta Immigrazioaren Tokiko Kontseiluko (CLI) presidentek; **Milagros Acea** Asociación Sierra Maestra – Comunidad Cubana residente en Euskadi elkarteko kide eta CLlko bigarren presidenteordeak; eta **Norma Vázquez** psikologo eta feministak osatu dute **Epaimahaia**. Epaimahaiaren iritziz, baldintzak betetzeaz gain, hautatutako zazpi emakumeak dagozkien kategorietan egindako ekarpen bereziarengatik nabarmentzen dira:

- **EMAKUME POLITIKARIA:** Kehinde Akeju (Nigeria)
- **EMAKUME ARTISTA:** Karina Perla (Peru)
- **GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSAN ARITZEN DEN EMAKUMEA:** Rosario del Carmen García (Kolonbia)
- **EMAKUME GAZTEA:** Manuela Correa Jaramillo (Kolonbia)
- **KOMUNITATEKO EMAKUME ERAGILEA:** Victorine Damasse Atakiti (Kamerun) eta Marie Lucia Monsheneke (Kongoko Errepublika Demokratikoa)
- **EMAKUME EKINTZAILEA:** Fatou Dieng (Senegal, Afrika)

Itziar Urtasunen berbetan, *“saritutako emakume horiek ibilbide luzea dute, hainbat arlotan dute esperientzia, lotura berezia dute mugimendu sozial eta komunitarioekin, eta inplikazio pertsonala dute aktibista gisa Giza Eskubideen Defentsan eta arrazakeriaren kontrako borrokan, ikuspegi feministatik”*.

ATZERRITAR JATORRIKO EMAKUMEAK: % 52,5 ETA 26.654 ERROLDATU

Bizkaiko hiriburuko datu demografikoei dagokienez, hirian bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen erdia baino gehiago emakumeak dira, **errolatuta daudenen % 52,5a dira, 26.654 guztira. Profil ohikoena Latinoamerikako emakumea da, 17.531, hau da, atzerriko emakume guztien % 65,8a.**

Kolektibo horrek bizitzeko aukeratutako barrutiei dagokienez, Ibaiondok eta Errekalde dute atzerritar jatorriko emakume gehien, Bilbon errolatutako atzerritar jatorriko emakume guztien % 21,4 eta % 18,3, hurrenez hurren. Ibaiondo, Errekalde eta Deustu dira Latinoamerikako emakume gehien biltzen dituzten barrutiak (3.378, 3.206 eta 2.611, hurrenez hurren), eta Begoñan daude emakume bulgariar, errumaniar edo kroaziar gehien (321). Ibaiondo da Afrikatik (Magrebetik eta Afrikako gainerako lekuetatik) datozen emakumeen gunea nagusia, eta Errekalde nabarmentzen da jatorri txinatarreko emakumeak bizi diren eremu nagusi moduan (errolatutako emakume txinatarren % 43,7a barruti horretan bizi da).

Zifrek sendotu egiten dute “Aintzatespena Bilboko Emakume Migratzaileei” ekimenaren izaera estrategikoa, Immigrazioaren Tokiko Kontseiluak gauzatzen duen lanaren barruan. Finkatuta dago, eta [“Bilbao Balioen Hiria”](#) proiektuaren Balioen Agiriarekin lerrokatuta, kultur aniztasunetik abiatuta inklusioa, tolerantzia eta bizikidetzeta bultzatuko duten ekintzak gauzatzearen aldeko apustuan. Balio horiek beti daude presente, justizia soziala, giza eskubideekiko errespetua, inklusioa, konpromisoa, elkartasuna eta partaidetza, besteak beste. Modu berean, **2030 Agenda Garapen Jasangarrirako Helburuei** lotzen zaie, eta

[Bilbo Plana, Kulturarteko Hiria](#) planaren barruan dago. Plan horrek **emakume migratzaileen ahalduntzea sustatzeko lan-eremu espezifikoak jasotzen du, eta bere lehentasunetako bat gizarte-zaurgarritasun handiagoa duten kolektiboekin esku hartzea da. Kolektibo hori horien artean dago.**

HIRIAREN GARAPENARI EGINDAKO EKARPENAREN 19 TESTIGANTZA

Gainera, jatorriz migratzaileak diren emakumeek Bizkaiko hiriburuari egiten dioten ekarpena ikusarazteko asmoz, Laura Caorsi kazetariak eta Rubén Arribas erredaktoreak **“Geu- Nosotras”** aurkeztuko dute gaur arratsaldean, 18:00etatik 20:00etara, **euren bizipenak eta istorioak kontatzen dituzten emakume migratzaileei egindako 19 elkarrizketa, Hiribilduaren garapenari egindako ekarpena nabarmenduz.**

Adin eta ibilbide anitzekoak, jakintza eta jatorri desberdinekoak, artetik merkataritza-ekintzailetzara eta politikatik giza eskubideen aldeko lanera doazen talentuak, guztiek lagundu dute Bilbo gaur egun den hiria izaten eta bihar izango den hiria eraikitzen.

Kolonbia, Filipinak, Errumania edo Senegal bezalako leku desberdinetan jaiotako Marta, Aura, Milagros, Porciana, Georgina, Esperanza, Nilda, Manuela, Farah, Viorica, Karla, Noreida, Doris, Maylin, Lidia, Norma, Luz, Irina eta Fatou, hirira sentsibilitatea, lana eta talentua ekarri duten emakumeak dira.

Argitalpenaren aurkezpen-ekitaldiaren ostean, solasaldia egingo da eguneko protagonistekin Emakume Migratu Ekintzaileen Elkartearen eskutik. Solasaldi horretan emakume horiek arlo pertsonaletik hasi eta arlo profesionalera egindako bide luzea nabarmendu ahal izango da, emakume guztiek komunean dituzten espazioak eta erronkak agerian utziz.

→ **“GEU-NOSOTRAS” ARGITALPENA ERANSTEN DA.**

SARE SOZIALAK

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO CIUDAD INTERCULTURAL:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#)

BILBAO RINDE HOMENAJE A LAS MUJERES MIGRANTES

- El Ayuntamiento de la capital vizcaina ha hecho entrega de los premios de la tercera edición de “Reconocimiento a las mujeres migrantes bilbainas”.
- Una iniciativa del Consejo Local de la Inmigración que tiene como objetivos reconocer la importancia de la presencia de la mujer inmigrante en la vida social y pública y posicionar espacios de referencia y reconocimiento de la diversidad en la Villa.
- 7 han sido las premiadas en 6 categorías que reconocen a la Mujer Política, Artista, Defensora de los Derechos Humanos, Joven, Agente Comunitaria y Emprendedora.

(Bilbao, a 10 de marzo de 2022).- Esta mañana, la sala Ganbara de [BBK KUNA](#), ha acogido la entrega de premios de la III Edición del “Reconocimiento a las Mujeres Migrantes Bilbainas”, impulsada por el [Consejo Local de la Inmigración](#) del Consistorio bilbaino.

Este acto institucional ha estado presidido por la Concejala de Cooperación, Convivencia y Fiestas del Ayuntamiento de Bilbao, **Itziar Urtasun**, quien ha puesto en valor la aportación que estas mujeres realizan a la vida de la ciudad, *“en Bilbao contamos con una población inmigrante con una gran fuerza, con una gran capacidad de acción y con grandes deseos de aportar al desarrollo social, político, económico y cultural de la ciudad en la que se les recibe. Y dentro de este diverso grupo poblacional, destacan muchas mujeres que cumplen un papel esencial como agentes de referencia comunitaria, profesionales, lideresas, pensadoras, políticas y emprendedoras, a la vez que son motor de bienestar y desarrollo para sus familias y otros círculos sociales”*.

En este evento, que pone el acento en uno de los fundamentos del modelo intercultural, el **reconocimiento positivo de la diversidad como factor de desarrollo local**, y se celebra en el marco del **8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres**, Itziar Urtasun ha destacado el compromiso del Ayuntamiento de Bilbao para reforzar la interculturalidad como principio de acción local transversal, *“nos sentimos muy orgullosos y agradecemos a todas y cada una de las vecinas y vecinos migrantes a la sociedad bilbaina, destacando el papel que desempeñan las mujeres”*.

La iniciativa celebra su tercera edición y tiene como objetivos **reconocer la importancia de la presencia de la mujer inmigrante en la vida social y pública y posicionar espacios de referencia y reconocimiento de la diversidad en la capital vizcaina**.

En este sentido, según ha explicado la Concejala, *“es esencial contar con referentes en la comunidad, espejos donde mirarse, mujeres ejemplo que inspiren y apoyen a las próximas generaciones, las que ya están y las que vendrán. Estas historias de trabajo, superación, esfuerzo personal, y logro de objetivos podrán servir de guía a otras mujeres que se encuentren en el mismo camino”*.

Para la actual convocatoria, el **Jurado** compuesto por la Concejala de Cooperación y Convivencia y presidenta del Consejo Local de la Inmigración (CLI), **Itziar Urtasun**; por la vicepresidenta segunda del CLI, **Milagros Acea**, de la Asociación Sierra Maestra – Comunidad Cubana residente en Euskadi; y por la psicóloga y feminista, **Norma Vázquez**, han determinado que, además de cumplir con los requisitos, las siete mujeres elegidas destacan por su especial contribución en sus categorías correspondientes:

- **MUJER POLÍTICA:** Kehinde Akeju (Nigeria)
- **MUJER ARTISTA:** Karina Perla (Perú)
- **MUJER DEFENSORA DE LOS DERECHOS HUMANOS:** Rosario del Carmen García (Colombia)
- **MUJER JOVEN:** Manuela Correa Jaramillo (Colombia)
- **MUJER AGENTE COMUNITARIA:** Victorine Damasse Atakiti (Camerún) y Marie Lucia Monsheneke (República Democrática del Congo)
- **MUJER EMPRENDEDORA:** Fatou Dieng (Senegal, África)

En palabras de Itziar Urtasun, *“estas mujeres galardonadas cuentan con una larga trayectoria, su experiencia en diferentes ámbitos, su especial vinculación con movimientos sociales y comunitarios así como su implicación personal como activistas en la Defensa de los Derechos Humanos y la lucha contra el racismo desde una perspectiva feminista”*.

MUJERES DE ORIGEN EXTRANJERO: 52,5% Y 26.654 EMPADRONADAS

Respecto a los datos demográficos en la capital vizcaína, más de la mitad de la población de origen extranjero residente en la Villa son mujeres, un **52,5% y 26.654 empadronadas**, siendo **el perfil más común el de la mujer latinoamericana, 17.531, un 65,8% del total de mujeres de origen extranjero**.

En cuanto a los Distritos escogidos para vivir por este colectivo, Ibaiondo y Errekalde albergan el mayor número de mujeres de origen extranjero, con el 21,4% y el 18,3%, respectivamente, del total de mujeres de origen extranjero empadronadas en Bilbao. Ibaiondo, Errekalde y Deusto son los Distritos que mayor cantidad de mujeres latinoamericanas albergan (3.378, 3.206 y 2.611 respectivamente), mientras que en Begoña es donde más mujeres búlgaras, rumanas o croatas se agrupan (321). Ibaiondo vuelve a mostrarse como el principal foco de las mujeres procedentes de África (magrebí y resto de África), mientras Errekalde destaca como la principal área donde se asientan las mujeres de origen chino (el 43,7% de las mujeres chinas empadronadas vive en ese Distrito).

Las cifras consolidan este “Reconocimiento a las Mujeres Migrantes Bilbainas” como estratégico en el marco del trabajo que desarrolla el Consejo Local de la Inmigración. Consolidado, está alineado con la Carta de Valores del proyecto “[Bilbao Balioen Hiria](#)” en su apuesta por el desarrollo de acciones que favorezcan la inclusión, la tolerancia y la convivencia desde la diversidad cultural y en la que valores como la justicia social, el respeto a los derechos humanos, la inclusión, el compromiso, la solidaridad y la

participación están siempre presentes. Asimismo se vincula a los **Objetivos de Desarrollo Sostenible Agenda 2030** y está enmarcado en el [Plan Bilbao, Ciudad Intercultural](#) que recoge un ámbito específico de trabajo para **promover el empoderamiento de las mujeres migrantes y que determina como una de sus prioridades la intervención con colectivos que sufren una mayor vulnerabilidad social entre los que se encuentra este colectivo.**

19 TESTIMONIOS DE APORTACIÓN AL DESARROLLO DE LA VILLA

Además, con el objetivo de visibilizar la contribución de las mujeres de origen migrante a la capital vizcaina, esta tarde, de 18:00 a 20:00 horas, la periodista Laura Caorsi y el redactor Rubén Arribas presentarán “**Geu- Nosotras**”, una publicación con **19 entrevistas a mujeres migrantes que relatan sus experiencias e historias de vida destacando su contribución al desarrollo de la Villa.**

Con edades y trayectorias diversas, con saberes distintos y orígenes diferentes, con talentos que van del arte al emprendimiento comercial y de la política al trabajo por los derechos humanos, todas ellas han contribuido a que Bilbao sea la ciudad que es hoy y contribuyen a perfilar la ciudad que será mañana.

Nacidas en lugares tan dispares como Colombia, Filipinas, Rumanía o Senegal, Marta, Aura, Milagros, Porciana, Georgina, Esperanza, Nilda, Manuela, Farah, Viorica, Karla, Noreida, Doris, Maylin, Lidia, Norma, Luz, Irina y Fatou son mujeres que han traído sensibilidad, trabajo y talento a la ciudad.

Tras la presentación de la publicación se desarrollará un conversatorio con las protagonistas de la jornada de la mano de la Asociación de Mujeres Migradas Emprendedoras. Un coloquio que podrá el acento en el largo camino recorrido de estas mujeres desde lo personal hasta lo profesional evidenciando los espacios y retos que son comunes a todas las mujeres.

→ **ADJUNTO LA PUBLICACION “GEU-NOSOTRAS”**

REDES SOCIALES

- **BILBAO UDALA:** [YOUTUBE](#) | [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#) | [INSTAGRAM](#)
- **BILBAO CIUDAD INTERCULTURAL:** [FACEBOOK](#) | [TWITTER](#)